

DIRU-ITURRIAK

Lehenik eta behin, *Eraman* enpresa ordainketa bakarreko diru-sarreretan oinarrituko da, eta diru-iturri nagusia aktiboen salmenta izango da, aktiboak gure karro autonomoak izanik. Gure denda propioan (webgunean), supermerkatuetan edo merkatu elektrikoetan salduko direnak. Ondorioz, salmenta zuzena egingo dugu.

Salmenta bi merkaturi egongo da zuzenduta. Lehenengo supermerkatuei, bertan gure produktua salgai egongo baita. Bigarrenik, elektronika dendei, karroa erosteko eskugarri jarriko dutelako. Egia da modu honetan webgunearen bidez baino irabazi gutxiago edukiko genituzkeela hasiera batean (denda horiek irabaziaren zati bat eskatuko digute), hala ere, beharrezkoa da produktua fisikoki saltzea gure erosle potentzialarentzat errezagoa izan dadin.

Horrez gain, prezioari dagokionez, gure produktua eskuragarria izango da. Jarraian ikus dezakegun bezala zentzuzko prezio bat baitu. Karro arrunten prezioa 30€ ingurukoa da, eta gurpil-aulki elektriko batena berriz 700€-koa. Ondorioz, bi produktuen nahasketaren balantza bikaina da gure karroa.

Ondoren, lau karro modelo eskainiko ditugu. Handia edo txikia eta eskailerak igotzen dituen edo igotzen ez dituen. Hori dela eta, lau prezio desberdin izango dira. Handia eta txikiaren arteko diferentzia 50€-koa izango den bitartean, ekailerak igotzen dituenak igotzen ez dituenaren bikoitza balioko du. Gauzak horrela, honako prezio hauek aurreikusten ditugu gure karroentzat: 800€ eta 850€ eskailerak igotzeko egitura ez dutenak eta 950€ eta 1000€ eskailerak igotzeko gai izango direnak. Prezioak gainera finkoak izango dira, ez dira beraz merkatuaren arabera aldatuko.

Azkenik, gure proiektua errentagarria izateko aurreikusi dugun aurrekontua produktuen salmentarekin lortutako irabaziaz baino txikiagoa izan beharko da. Bestalde, hala ez balitz, markaren batekin aliantza egitea izango litzake konponbidea, karroen diseinuan marka horren publizitatea eginez adibidez. Hala ere, hori bigarren aukera bat bezala ikusten dugu, publizitaterik gabeko karroak eskaintzea baita gure lehen helburua.